

## 22/10 IRIZPENA

Maite Alonso, presidentea  
Josu Badiola  
Begoña Cabria  
Lierni Lizaso  
Mari Tere Ojanguren  
Cristina Sánchez  
Idoia Pujana  
Eduardo Ubieta  
Lourdes Villardón  
Eva Blanco, Secretaria Técnica

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2022ko urriaren 4ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Dekretu proiektua, zeinaren bidez seigarrenez aldatzen baita hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasle ez diren lan-kontratadun langileen lanpostuen zerrenda onartzen duen 186/2017, uztailaren 4ko Dekretua.**

### I.- AURREKARIAK

Uztailaren 4ko 186/2017 Dekretu bidez onartu zen EAEko ikastetxeetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakaskuntzaz besteko lan kontratadun langileen lanpostu zerrenda (2017ko abuztuaren 29ko akats-zuzenketarekin).

Geroztik, martxoaren 6ko 34/2018 Dekretuak, apirilaren 24ko 61/2018 Dekretuak, martxoaren 31ko 49/2020 Dekretuak, apirilaren 20ko 128/2021 Dekretuak eta 47/2022 Dekretuak aldatu dute, eta Kontseilu honek horien guztien berri eman du.

Apirilaren 5eko 66/2005 Dekretuak sortzen eta arautzen ditu Hezkuntza bereziko irakaskuntzaz besteko lan kontratadun langileen hizkuntza eskakizunak.

### I. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 2 artikulua, 2 azken xedapen eta eranskin bat ditu.

1. artikulua Eranskinetako lanpostu zerrendetan egindako aldaketak onartzen ditu.

2. artikulua ezartzen du toki-aldatze lehiaketa izango dela I eranskinean dauden lanpostuak hornitzeko sistema.

Azken lehen xedapena errekursoak jartzeko prozedurei buruzkoa da.

Azken bigarren xedapenak dio noiz sartuko den araua indarrean.

### III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Batzorde Iraunkorrek 22/02 Irizpenean bosgarren aldiz aldatzen duen 186/2017 Dekretuari buruzko irizpena eman zuen. Dekretu horretan 50 plaza berri sortu ziren, eta 47/2022 Dekretuan argitaratu ziren. Gainera, jakinarazten zen LPZ funtzionalean EAEko lanaldi osoko plazak 849 izan zirela 2020-21 ikasturtean, eta 880 2021/22 ikasturtean.

Dekretu-proiektu honek 487 lanpostu berri, lanaldi osoko 236 lanpostu eta lanaldi erdiko 251 lanpostu, gehitzea proposatzen du.

Taula honetan jasota daude indarrean dagoen LPZ eta proposatzen den aldaketa

Jomugak	Egungo LZP	Aldaketa	
		lanaldi osoa	Lanaldi erdia la
Fisioterapeuta	33	1	4
Gizarte langilea (Desagertzear)	3		
Hezkuntza laguntzarako espezialista	783	216	243
Okupazio-terapeuta	10	4	1
Material transkribatzailea eta egokitzailea	4	3	0
Zeinu hizkuntzako interpretea	6	12	3
<b>LPZ organikoa guztira</b>	<b>839</b>	<b>236</b>	<b>251</b>

Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren memorian adierazten den bezala, aldaketa horrek, alde batetik, 2022/2023 ikasturterako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen gehikuntzari erantzuten dio, eta, horren ondorioz, hezkuntza-laguntzako espezialistak behar dira batez ere, eta, bestetik, *Lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuaren aurreikuspenetatik eta Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako ondorioei.*

Batzorde Iraunkorrak positibotzat jotzen du plaza horiek irakasle ez diren lan-kontratadun langileen LPZ organikoan sartzea, arreta jasotzen duten ikasleen kopurua handitu delako, eta uste du kolektibo horren bitartekotasuna zuzentzen lagunduko duela.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2022ko urriaren 4an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURUA